

# HEZI HEGOAK EMANEZ

Hainbat ideia ikasle bakoitzak, ikasgelan eta ikastetxean parte-hartzeari esker, bere potentzial maximoa gara dezan



# HEZI HEGOAK EMANEZ


Pertsona baten garapena hautematea haur-hezkuntzan lehenengo urratsak egiten dituenetik bigarren hezkuntza amaitzen duen arte ia magikoa da. Pertsona bat haur txikia denetik ia heldua den arte igarotzen diren urteak hainbat esperientzia, ikasketa eta aldaketa sakonez beterik daude. Hezkuntzak ikasle bakoitzaren potentziala ahalik eta gehien garatzen laguntzen duenean, hegoak ematen laguntzen diogu.

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren hitzaurrearen arabera, haurrak eta nerabeak gizartearen bizitza independente bat izateko prestatu behar dira. Hori lortzeko, funtsezkoa da parte-hartze eskubidea gauzatzea. Egiazko parte-hartze prozesuak jasotzen dituen haur-eskubideen hezkuntzaren gaineko hezkuntza-ikuspuntu bat izateak ikasleen identitatea finkatzen, beren konfiantza bultzatzen eta honako balio hauen oinarriak ezartzen laguntzen du: erantzukizuna, mundu mailako

herritartasuna, demokrazia, espiritu kritikoa eta besteekiko errespetua.

Gaitasun horiek garatzeko ezin da heldua izan arte itxaron: eskolako lehenengo urteetan bultzatzen ez badira, gure ikasleek balio horiek garatzeko aukera gal dezakete haurtzaroan eta nerabezaroan. Gizarte libreak eta demokratikoak eraiki nahi baditugu, non bizikidetzak bultzatuko den bestearekiko errespetuaren eta erantzukizunaren bidez, haurrak eta nerabeak parte hartzera bultzatu behar ditugu; horretarako, hainbat tresna eta espazio ahalbidetuko dizkiegu beren ingurunean, eskola barne.

Parte-hartzearen bidez, berdinen artean hitz egiten ikasten dugu, partekatzen eta arduratsuak izaten, guru burua gaingidituz. Parte-hartzeak pertsona sendoak eta hegaldunak sortzen ditu.



# ERABILI KOADERNO HAU ERREPIDE-ORRI GISA!

Koaderno hau diseinatu da, inprimatu ahal izateko, osorik edo zati batean, eta inprimatutako orriak langileen gelan ikusgai dagoen lekuan kokatzeko. Horrela, ikasturtean zehar haurrentzako parte-hartze jarduerak eskola-jardueran txertatzeko bide orri bat izan daiteke. Orrialde bakoitzak haurren parte-hartzeari buruzko galdera zehatz bat erantzuten du eta bere edukiak linean zabaltzen dira [www.unicef.es/eus/educa/partaidetza](http://www.unicef.es/eus/educa/partaidetza) Inplikatu eskola komunitate osoa haurren parte hartzeko eskubidea lortzeko!



# ZER DA HAURREN PARTE-HARTZEA?

Denok dakigu zer den parte hartzea, baina parte-hartzearen esanahia eta ematen duen hezkuntza-balioa agian ez dira hain agerikoak: parte-hartzeak erantzukizunak hartzen laguntzen digu, independentzia hartzen eta gure potentzial handiena garatzen bizitzan. Ez diezaiegun hori kendu gure ikasleei!

## Haurtzaroko eskubide bat



Parte-hartzeko eskubidean honako hauek sartzen dira: eragiten dieten gaietan askatasunez iritzia emateko eskubidea

izatea, adierazpen-askatasuna, pentsamendu-askatasuna, kontzientzia eta erlijioa, elkarte-askatasuna, informazioa eskuratzeko eta bizitza pribatua babesteko eskubidea izatea. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak eskubide osoko herritar moduan aintzatesten ditu haurrak eta nerabeak: ez dira etorkizuneko herritarrak, gaur egungo herritarrak dira, eta ondorioz, parte hartu dezakete eta parte hartu behar dute.

## Hezkuntza-tresna bat



Parte-hartzea ohiko eran gauzatzeari esker, gizartean bizitza independente bat garatzeko

hezkuntza-gaitasun giltzarriak garatu daitezke: negoziazio- eta adierazpen-gaitasunak, auto-ezagutza, enpatia, errespetua, dibertsitatea, talde-lana, gatazka-konponketa, etab.

## Eskola-giroari bultzada bat



Haurren eta nerabeen parte-hartzearen bidez, eskolan giro ona izateko

zenbait elementu bereizgarri garatu ditzake hezkuntza-komunitate osoak: harreman positiboak izatea, partaide izateko zentzua garatzea, segurtasun emozionala, onarpen-sentimenduak eta berdinaletasuna hautematea, errespetua sustatzea, etab.

## PARTE-HARTZEA = ERANTZUKIZUNA

**Parte hartzen ikastea arduratsua izaten ikastea da. Haurrek, adinaren arabera, eragiten dioten gaietan parte hartzen dutenean eskolan, erantzukizunak hartzearekin lotutako eskumenak hartzen dituzte, eta pixkanaka-pixkanaka, bizitza independente bat garatzen dute, gizartearen parte aktiboa izan daitezen, irizpide independentearekin eta erantzukizun osoarekin.**

**ZER EZ DA HAURREN PARTE-HARTZEA?** Parte-hartzearen gainean hainbat mito existitzen dira, eta ez dira egiazkoak. Haurren parte-hartzearen fake news-ak dira. Ikus itzazu hemen: [unicef.es/eus/educa/partaidetza](https://unicef.es/eus/educa/partaidetza)

# NORK PARTE HARTU DEZAKE?

Edozein haurrek edo nerabek parte har dezake haurrek parte hartzeko prozesuetan. Ez dio axola zer adin, garapen maila, gaitasun, pertsonalitate, etekin akademiko, etab. duten. Parte-hartzea eskubide bat da eta denontzat da!



## Haur-hezkuntza: Lehentasunak ezagutu

Parte hartzeko gaitasunak garatzeko lehenengo fasean “lehentasun” nozioa garatu behar da. Zer dugu nahiago? Zer dute nahiago besteek? Pertsona bakoitzaren lehentasunak garrantzitsuak direla eta horiek adierazteko askatasuna dugula jakiteari esker, nahiz eta lehentasun horiek beti ezin ditzakegun lortu, herritartasunaren gaitasuna garatzeko funtsezko ezagutzen, jarreraren eta gaitasunen oinarriak ezarri daitezke.

## Lehen hezkuntza: Elkarrekin bizitzen eta taldean lan egiten ikastea

Hezkuntza-etapa hori funtsezkoa da talde-lanarekin lotutako gaitasunak garatzeko: bizikidetzeta, besteearekiko errespetua, akatsaren aurrean tolerantzia izatea eta gatazkak konpontzea. Lehen hezkuntza osoan zehar, gaitasun horiek eta beste batzuk gara daitezke haurren parte-hartzearen modu gero eta konplexuagoak ahalbidetuko dituzten ikasgelako eta ikastetxeko proiektuetan parte hartuz.



## Bigarren hezkuntza: Bizitza independenterako prestakuntza

Etapa hori funtsezkoa da erantzukizunaren zentzua garatzeko. Hezkuntza-zentroaren eta komunitatearen hainbat jardueretan parte hartzeari eta asoziazionismoari esker, gazteek beren independentzia eta zentzu kritikoa indartzen jarraituko dute, eta parte hartzen duten proiektuen emaitza positiboaren edo negatiboaren gaineko erantzukizunak hartuko dituzte.

# PARTE HARTZEA DA GARRANTZITSUA!

Parte hartzea ez da “presente izatea” edo “bertaratzea”. Parte hartzean, hainbat gauza egiten ditugu: planifikatu, antolatu, koordinatu, eztabaidatu, erabaki, gauzatu, ebaluatu, etab. Haurren eta nerabeen parte-hartzeak zentzu horretan du benetako hezkuntza-balioa. Gainera, emaitzak badu garrantzia: parte-hartze ariketa bat non parte-hartzaileek emaitzaren gaineko ardurarik hartzen ez duten, non ebaluatzen ez duten eta non hobekuntzak bilatzeko arduratzen ez diren, ez da egiazko parte-hartze ariketa bat. Gure ikasleen gaitasunen eta garapen mailaren neurrian, egiazko parte-hartzearen formulak bila ditzakegu.

**HEZKUNTZA-ETAPAREN ARABERAKO IKASKETAK** Etapa bakoitzean parte hartzearekin lotutako ezagutzen, jarreraren eta gaitasunen gainean gehiago jakin nahi izanez gero, ikusi: [unicef.es/eus/educa/partaidetza](https://unicef.es/eus/educa/partaidetza)



# NONDIK HASIKO GARA?

Haurren eta nerabeen prozesuak hasteak bertigo pixka bat eman dezake hasieran. Zer da egin behar den lehenengo gauza? Erantzuna erraza da: Hori egin nahi izatea!

## GALDERA GAKOAK



Zergatik nahi ditugu parte-hartze prozesuak abiarazi?  
Eman al diogu hezkuntza-komunitateari horren berri?  
Konpromisoa hartu al dugu prozesuarekin eta horren emaitzekin?

## “Nahi bada, ahal da”

Argi badugu haurren parte-hartzeak zer nolako garrantzia duen eta eskola-bizitzan parte-hartze prozesuak sartu nahi baditugu, lehenengo urratsa egin dugu jada. Hezkuntza-komunitateak, orokorrean, haurren eta nerabeen parte-hartzea ulertzea eta hori babesten lortzea beharrezko baldintza da gure ekimenek arrakasta izateko.

### Eta gero?

Zenbait alderdi praktiko ezin dugu oso berandura arte utzi, ikasleen parte-hartzea inplikatzeko duten proiektuei ekiten diegunean. Honako gai hauei ahalik eta azkarren ekin behar zaie, garrantzitsua da:

- Espazioen eta parte hartzeko denboren planifikazioa
- Parte hartzeko modu egokien hautaketa
- Ikasle bakoitzaren parte-hartzailea izatea proiektuaren lehenengo faseetatik, haien gaitasunen eta heldutasunaren arabera.



# PREST AL GAUDE?

Hezkuntza-zentroetako haurren parte-hartzea borondatearen arabera izaten da, baliabide fisikoen arabera baino gehiago. Izan ere, nahiz eta baliabide fisikoak garrantzitsuak izan, ez dituzte emaitzak baldintzatzen; aldiz, parte-hartzeari, dibertsitateari eta ikuspegi-aniztasunari irekitako eskola-kultura izateak emaitza horiek baldintzatu ditzake.

## ZUEN ZENTROAN...

- ✓ **Ikasle guztiek, salbuespenik gabe, hezkuntza izatearen alde lan egiten baduzue.**
- ✓ **Sinesten baduzue zuen ekintzak haurren eskubideen ikuspegitik gauzatzeak hezkuntza-indarra duela.**
- ✓ **Ikasleen premien eta ezaugarrien arabera antolatzen eta planifikatzen baduzue.**
- ✓ **Hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatzen baduzue, elkarriketa berdinezalea sustatuz.**
- ✓ **Ikasleentzako goi mailako asmoak mantentzen badituzue, haien ezaugarriak edo egoera pertsonalak alde batera utzita.**
- ✓ **Uste baduzue iritzi-aniztasuna denok aberasten gaituen balioa dela.**

## ...PREST ZAUDETE!

### Zer da benetan garrantzitsua?

Konturatu gabe pasa daitezkeen zenbait alderdik inpaktu handia izaten dute parte-hartzean; aitzitik, oso erabakigarriak diruditen beste batzuk ez dira hain garrantzitsuak:

#### Parte hartzeko garrantzitsua

- Denborak eta espazioak izatea.
- Zentroaren iragazkortasuna ingurunearen eta gizartearen giroaren aurrean.
- Malgutasuna antolakuntza mailan.
- Barruan parte hartzeko ereduak (klastroa, familiak, etab.)
- Irakasleen trebakuntza.
- Planifikazioa.
- Sormena.

#### Ez hain garrantzitsua


- Zentroaren tamaina.
- Zentroaren titulartasuna.
- Ikasleen adina.
- Ikasleen gaitasunen dibertsitatea.
- Elkartze-sistemak.
- Eskola-egutegia eta -jardunaldia.
- Baliabide ekonomikoak.

**EGIAZKO PARTE-HARTZE BATERAKO GAKOAK.** Nola jakin eskolan parte hartzeko ekimen bat eraginkorra dela? Ikus ezazu honako test eskuragarri honen bidez: [unicef.es/eus/educa/partaidetza](http://unicef.es/eus/educa/partaidetza)

# ZER HARTZEN DUGU KONTUAN?


Parte hartzen ikasteko, parte hartu behar dugu, bai helduen zein haurren kasuan ere; pixkanaka egiten den prozesu bat da, eta hainbat ezagutza eta tresna jasotzen ditugu, aurrera egin ahala. Parte hartzeko espazio seguruak eta inklusiboak eta askatasuna dutenak behar dira, errespetuarekin adierazteko eta entzuteko. Gainera, parte-hartzea ekintzetan zehaztu behar da; eztabaidatzea ez da nahikoa.

Haurren eta gazteen parte-hartze prozesu bati ekitean, honako lau irizpide hauek izan behar dira kontuan:



## Progresibitatea

- Parte hartzeko gaitasunak pixkanaka-pixkanaka eboluzionatzen du adinarekin batera: prozesuaren konplexutasuna eta heltze-garapena paraleloak izan behar dira.
- Parte hartzeko ekimenak pixkanaka-pixkanaka sartuko dira eskolan; hasteko, proiektu ez hain handinahiei ekingo zaie, eta ondoren, aurrera egiten jarraituko da, etengabe.



## Pazientzia

- Parte-hartzea prozesu bat da, ez da ekintza isolatu bat.
- Ez du berehalako emaitzarik sortzen giro-hobekuntzan, eskolaren kultura edo ikasleen gaitasunetan.



## Babesa

- Parte-hartzeak besteen iritzia eragina izatea dakar.
- Arau oso argiak jarraitu behar dira, bereziki haurrek eta helduek aldi berean parte hartzen dutenean.



## Sustapena

- Parte-hartze ekimenak jakinaraztea hezkuntza-komunitate osoari, ikusgaitasuna ematea eta ustezko zalantzei argitasunarekin erantzutea.
- Komunikazio on batek parte-hartzaile guztiak motibatuko ditu eta energia eman diezaioke proiektuari.



**PARTE-HARTZAILEEN ESKUBIDEAK BABESTEA.** Parte hartzeko eskubidea gauzatzen dutenen eskubideak babestu behar dira haurren parte-hartze prozesu ororen baldintza moduan. Ezagutu zenbait giltzarri hemen: [unicef.es/eus/educa/partaidetza](https://unicef.es/eus/educa/partaidetza)



# ZER GAIREN GAINEAN PARTE HARTZEN DUGU?

Gai batzuk beste batzuk baino egokiagoak dira haurrentzat: duten zailtasunarengatik, edukiengatik edo haurrengan sortzen duten interesarengatik. Hala ere, batzuetan, egokiak, ulergarriak eta interesgarriak izan daitezkeen eztabaidetatik kanpo uzten ditugu haurrak. Zergatik ez ditugu barne hartzen? Ikasleek parte hartzeko zer gai ireki ez dakigunean, erabaki-inbutu hau erabil dezakegu:



Haurren Hitzarmenak dioenez, eta adinaren eta heldutasunaren arabera, haurrek eta nerabeek beren iritzia askatasunez adierazteko eskubidea dute...

**...eragiten dieten gai guztien gainean.**


# NOLA PARTE HARTZEN DUGU?

Haurrek parte hartzeko modurik oinarritzkoena kontsulta da; hortik parte-hartze kolaboraziozkoa pasa gaitezke, eta maila gorengoan, ikasleek zuzendutako parte-hartzea izango litzateke.

## Hona hemen zenbait ideia ikasgelan eta ikastetxean parte-hartzea txertatzeko:

- Iradokizunen postontzia
- Ideia-taula, iragarpen-taula
- Inkesta
- Kontsulta irekia
- Oinarritzko eta lankidetzakasketarako taldeak
- Ikasleen batzordeak edo batzorde mistoak hezkuntza-komunitateko beste kide batzuekin.
- Eskolako irratia, egunkaria edo bloga
- Ekitaldien antolakuntza
- Ikasleen batzarra
- Parte-hartze kontseilua
- Ikasleen kontseilua
- Gatazka-batzordea
- "Ikaslearen gutun" bat idaztea
- Jokabide-kodean parte hartzea
- Elkartasun-gela bat martxan jartzea
- Parte-hartze koordinatzaile bat izendatzea zentroan

**"Hasteko, haurrei hitza eman behar zaie"**  
(Francesco Tonucci)



**ZERGATIK NAHI DUTE PARTE HARTU?** Parte-hartzea ahalegin bat eta erantzukizun bat da haurrentzat eta nerabeentzat. Ez al dira pozago bizi konplikazio horien berri jakin gabe? Ezagutu parte hartzeko dituzten arrazoiak hemen: [unicef.es/eus/educa/partaidetza](https://unicef.es/eus/educa/partaidetza)

# GEHIAGO JAKIN

Haurren eta gazteen parte-hartzeari buruz gehiago jakiteko hainbat baliabide, eta parte-hartze hori eskolako egunerokotasunean sartzeko metodologiak.




## Haurren parte-hartzea ikastetxeetan

Eskubideen eta herritartasun globalaren gainera UNICEFen hezkuntza-gida honek parte-hartze prozesuak ikastetxearen dinamikan sartzeko zenbait funtsezko alderdi jasotzen ditu, prozesu horien oinarriak eta onurak deskribatzen ditu eta eskola parte-hartzailea izateko ideiak eta estrategiak ematen ditu. Deskargatu hemen: [unicef.es/eus/educa/partaidetza](http://unicef.es/eus/educa/partaidetza)

## Haurren parte-hartzea ulertuz

Gida hau Los Glayus elkarteak egin du UNICEFekin lankidetzan, eta hainbat ideia, estrategia eta dinamika garatzen ditu haurren parte-hartzearekin lan egiteko urratsez urrats. Deskargatu hemen: [unicef.es/eus/educa/partaidetza](http://unicef.es/eus/educa/partaidetza)



## Haurrek tokiko mailan parte hartzearen gainean eztabaidatzeko oinarriak

Haurren Lagun diren Hirien eremuan sortu zen gida hau, eta hainbat proposamen ditu haurrek eta gazteek tokiko mailan parte har dezaten; proposamen horiek hezkuntza mailara ere egokitu daitezke. Deskargatu hemen: [unicef.es/eus/educa/partaidetza](http://unicef.es/eus/educa/partaidetza)

**[unicef.es/eus/educa/partaidetza](http://unicef.es/eus/educa/partaidetza)** Dokumentu honen edukien gainera azalpen zabalagoak webgunean aurki daitezke, non haurren parte-hartzearen gainera gauza gehiago ezagutu ditzakezun, parte-hartze hori haurtzaroko eskubideen gainera hezkuntzaren ezaugarri moduan ulerturik.

**DESKARGATU ITZAZU.** Haurren parte-hartzearen gainera dokumentu erabilgarri horiek eta beste hainbat aurki ditzakezu hemen: [unicef.es/eus/educa/partaidetza](http://unicef.es/eus/educa/partaidetza)

# HAURTZAROAREN EGUN UNIBERTSALA OSPATU

Aurten, azaroaren 20an, Haurtzaroaren Eguna bat egiten du Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 30. urteurrenarekin. Aukera ezin hobea da ikasleek ospakizun hori berea egin dezaten. Nigatik eta nire lagun guztiengatik!



**HEH 30<sup>URTE</sup>**  
HAURREN ESKUBIDEEI  
BURUZKO HITZARMENA

1. Animatu zure ikasgelakoak bereziki kezkatzen dituzten eta haurtzaroaren egunean aldarrikatu nahi duten gai bat aukera dezaten.
2. Ikasgelan kontsulta bat egin dezakezue eta botazio bidez, landu nahi duzuen arazo berezia aukeratu dezakezue. Haurtzaroko zein eskubiderekin lotzen da aukeratu duzuen arazoa? Deskargatu hemen: [unicef.es/eus/educa/partaidetza](https://unicef.es/eus/educa/partaidetza) "Nigatik eta nire lagun guztiengatik: 6 urrats mundua nire ikasgelaren bidez

aldatzeko"; hainbat jarraibide eta ideia jasotzen dituen 6 fitxadun koaderno bat da, landu nahi duzuen arazoaren gaineko ekintza bat garatzeko ikasgelan. Jai bat egingo al duzue? Kanpaina bat? Martxa bat? Erabili koadernoko eskemak eta laguntza metodologikoak denon artean jardunaldi bat prestatzeko.

3. Azaroaren 20ko astea da landu duzuen lana garatzeko unea. Zabaldu, denek zuen ospakizuna ezagutu dezaten!

**DESKARGATU ITZAZU.** Haurren parte-hartzearen gaineko dokumentu erabilgarri horiek eta beste hainbat aurki ditzakezu hemen: [unicef.es/eus/educa/partaidetza](https://unicef.es/eus/educa/partaidetza)

# TANTAK DENONTZAT!

Tanta-lasterketetan parte hartzea korrika egitea baino gehiago da: planeta honetako haur guztiek ura izateko eskubidea dutela aldarrikatzeko aukera bat da. Landu itzazu hainbat ideia zure ikasleekin, haur bakoitzak ingurumen osasuntsu bat izateko eskubidearen aldeko egiazko jai bat izan dadin jardunaldi hori. Uraren Eguna, Lurraren Eguna edo Ingurumenaren Eguna hirugarren hiru hilekoan martxan jartzeko aukerak dira.



IES Fray Bartolomé de las Casas

**DESKARGATU ITZAZU.** Haurren parte-hartzearen gaineko dokumentu erabilgarri horiek eta beste hainbat aurki ditzakezu hemen: [www.unicef.es/eus/educa/tantak](http://www.unicef.es/eus/educa/tantak)



**Edizioa**

UNICEF Espainiako Batzordea  
[www.unicef.es/eus/educa](http://www.unicef.es/eus/educa)

**Diseinu grafikoa:** Rex Media SL

**Ilustrazioak:** 2., 6. eta 10. orrialdeko ilustrazioak "Hegalak" animaziozko bideotik datoz, UNICEF-ek Beeround-ek egina.

**Itzulpena:** Bitez

Haurren eskubideei, garapen jasangarriari eta herritartasun globalari buruzko hezkuntza-materialak, baliabideak eta jarduerak UNICEF Espainiako Batzordearen lanaren zati bat dira Giza Eskubideetarako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzan. Hemen erakutsitako gertakariak eta iritziek ez dute zertan UNICEFen ikuspegia adierazi.

Erabilitako mapak estilizatuta daude eta ez daude eskalan eginak. Ez dute adierazten UNICEFen jarrera leku edo herrialde bakar baten egoera legalaren aurrean, ezta mugak ezartzearen aurrean ere.

Material hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziarekin (AECID) sinatutako akordioaren esparruan egin da: "Garapenarekin eta haurren eskubideekin gizarteak konpromisoa har dezan sustatzea Espainiako hezkuntza-sistematik". Argitalpen honen edukiak ez du zertan islatu AECIDen iritzia.

UNICEFek munduko leku latzenetan dihardu lanean haur eta nerabe babesgabeenengana iristeko eta haur guztien eskubideak defendatzeko, leku guztietan. 190 herrialdetan eta lurraldetan gaude, behar den guztia egiten dugu hurrei bizirauten, aurrera egiten eta haien ahalmena garatzen laguntzeko, umetatik nerabe diren arte. Eta inoiz ez dugu amore ematen. UNICEFen lana osorik finantzatzen da mundu osoko milioika pertsonen borondatezko ekarpenen eta gobernuetan, gizarte zibilean eta sektore pribatuetan ditugun aliatuen ekarpenen bitartez.

**FINANTZATZAILEA****LAGUNTZAILEA:**